

**2019 URTERAKO ENPRESA BERRITZAILEAK  
SORTZEKO DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMA  
ARAUZKEKO FORU-DEKRETUAREN PROIEKTUA  
EGITEKO PROZEDURAREN HASIERA.**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, beharrezkotzat eta egokitzen jotzen du enpresa berritzaileak sorrera sustatzea. Horretarako, hain zuzen ere, prestatu du

Urteko Arau Planean jasota daude, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretu baten bidez onartzea proposatzen den 2019rako Enpresa Berritzaileak Sortzeko programan aurreikusitako diru-laguntzak.

Hau xedatzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren «Urteko arau-plana onartzea» 4.1 artikuluan:

«Bizkaiko Foru Aldundiak urtero onartu eta argitaratuko du arau-plan bat, hurrengo urteko ekitaldian onartzeko proposatuko diren araugintza-ekimenekin eta erregelamenduzko ekimenekin. Plan horretan informazio hau jasoko da, gutxienez: xedapenaren izena eta maila, lortu nahi diren helburuak, onartzeko aurrez ikusitako epeak eta aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egin behar diren ala ez».

Hala ere, ENPRESA BERRITZAILEAK SORTZEKO DIRU-LAGUNTZEN 2019KO PROGRAMA ARAUZKEKO FORU-DEKRETUAREN PROIEKTUA prestatu, izapidetu eta onetsi nahi du. Proiektu horretan, aldaketa batzuk egongo dira enpresa berritzaileak sortzeko aurreko urteetako programa arautzeko foru dekretuaren aldean.

Aurrerapen-dokumentu bat egin da, non hauek zehazten diren:

- a.- arauketa berriaren bidez konpondu nahi den arazoa.
- b.- testu arauemailea onartzea beharrezkoa den eta aukerarik egokiena den ala ez.
- c.- arauaren xedea.
- d.- planteatutako arazoa konpontzeko egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).
- e.- arau-proposamenak ukitutako helburu publikoak eta

**INCOACIÓN DEL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN  
DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR  
DEL PROGRAMA DE SUBVENCIONES CREACIÓN DE  
EMPRESAS INNOVADORAS 2019.**

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, a través de la Dirección General de Promoción Empresarial y Desarrollo Económico, considera necesario y conveniente fomentar la creación de empresas innovadoras.

El Plan Normativo Anual recoge, entre otras, las subvenciones previstas en el Programa de Creación de Empresas Innovadoras 2019 que se propone aprobar mediante decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia.

En el art. 4.1 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, relativo a la "Aprobación del Plan Normativo Anual" se indica que:

"Con una periodicidad anual la Diputación Foral de Bizkaia aprobará y hará público un plan normativo referido a las iniciativas normativas forales y las de carácter reglamentario que vayan a proponerse para su aprobación durante el ejercicio anual siguiente, que contendrá, al menos, la siguiente información: denominación y rango de la disposición, objetivos generales perseguidos, plazos previsibles de aprobación y sujeción a los trámites de consulta pública previa y audiencia e información pública".

No obstante se quiere impulsar la elaboración, tramitación y aprobación del PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DE CREACIÓN DE EMPRESAS INNOVADORAS 2019, que incorporará modificaciones respecto al Decreto Foral regulador del programa de creación de empresas innovadoras de años anteriores.

Se ha elaborado un documento de avance en el que se indicaba:

- a.- el problema que se pretende solucionar con la nueva regulación.
- b.- la necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo.
- c.- el objeto de la norma
- d.- la existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.
- e.- el listado de los públicos objetivos afectados por la



nortzuei zuzendu behar zaien.

Bizkaiko Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozeduran aplikatu beharreko indarreko araudia, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretua betetzeko, aurretiazko kontsulta publikorako izapidea ireki zen. Kontsultarako izapidea ekainaren 13an argitaratu zen, web orrian, eta 15 egun naturaleko epean egon da ikusgai, iragarkia argitaratu zen egunetik hasita.

Kontsultarako izapidea amaituta, Enpresa Berritzaileak Sortzeko diru-laguntzen 2019ko Programa arautzeko foru-dekretuaren proiektuaren aurrerapen aurretiazko kontsulta publikorako izapidearen emaitzei buruzko memoria egin da. Horrez gainera, Enpresa Berritzaileak Sortzeko diru-laguntzen 2019ko Programa arautzeko foru-dekretuaren proiektua idatzi da.

Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretua betetzeko, erabaki behar da Enpresa Berritzaileak Sortzeko diru-laguntzen 2019ko Programa arautzeko foru-dekretuaren proiektua prestatzeko prozedura hastea, eta agindua eman behar da entzunaldiaren eta jendaurreko erakustaldiaren izapideak irekitzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen baitu, hau adierazten du 11. artikuluan:

*«2. Testu arauemailearen proposamena idatzi ondoren, xedapen orokorra egiteko prozedura hasteko eskumena duen organoak ebazpen bat emango du, foru dekretu honen 17. eta 18. artikuluetan ezarritako ondorioetarako.»*

Erregelamenduzko xedapen arauemaileei buruzkoa den 18. artikulutik ondorioztatzen da hasten direnetik 6 hilabeteko epea dagoela Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretu proiektuak onesteko eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

Foru-dekretu horren xedea da 2019. urteko Enpresa Berritzaileak Sortzeko Programaren barruan jasotako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta lehen deialdia onestea. Laguntza horiek Bizkaiko enpresa berritzaileen sorkuntza sustatu eta finkatzeko sortu dira

propuesta normativa y a quiénes se debe dirigir.

En cumplimiento de la normativa en vigor que resultar aplicable al procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, se abrió un trámite de consulta pública previa. La consulta se publicó en la web el 13 de junio y ha estado accesible durante 15 días naturales a partir del día de su publicación.

Finalizada la consulta se ha elaborado la memoria sobre los resultados del trámite de consulta pública previa del avance del proyecto de Decreto Foral regulador del programa de subvenciones de creación de empresas innovadoras 2019. Asimismo, se ha procedido a redactar el proyecto de Decreto Foral del Programa de subvenciones de Creación de Empresas Innovadoras 2019.

En cumplimiento del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, que regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, debe acordarse la incoación del procedimiento de elaboración del Decreto Foral del Programa de subvenciones de Creación de Empresas Innovadoras 2019 y ordenar la apertura del trámite de audiencia e información.

El Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, en su artículo 11, establece que:

*“2. Una vez finalizada la redacción de la propuesta de texto normativo se procederá a dictar una resolución por el órgano competente para la incoación del procedimiento de elaboración de la disposición de carácter general a los efectos previstos en los artículos 17 y 18 de la presente disposición normativa”.*

De la lectura del art. 18 referido a las disposiciones normativas de carácter reglamentario se cuenta con un plazo de 6 meses desde la incoación para aprobar y publicar en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Bizkaia los proyectos de decretos forales de la Diputación Foral de Bizkaia.

Constituye el objeto dicho decreto foral aprobar las bases reguladoras y la primera convocatoria de las subvenciones recogidas en el Programa de Creación de Empresas Innovadoras del año 2019, destinadas a fomentar y consolidar la creación de empresas innovadoras en Bizkaia.



Beaz, SAU foru sozietate publikoak aholkuak emango dizkie lagundutako pertsona edo entitate sustatzaileei, enpresa-proiektu berritzaileak aztertzen, abian jartzen eta finkatzen ari direnean. Beaz, SAU sozietateak Cedemi, Ezkerraldeko Enpresak Garatzeko Zentroa, SA enpresaren laguntza izango du.

Bizkaiko Foru Aldundiko ekonomi eta lurralde garapena sustatzeko foru-diputatua du eskumena adierazitakoa betetzeko, hala ondorioztatzen baita Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren egitura organikoaren araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuaren 1. eta 4.g) artikulua irakurriz gero.

Adierazitakoaren ondorioz, proposamen hau aurkezten da:

#### **FORU-AGINDUA**

**LEHENENGOA.-** Onartzea has dadila ENPRESA BERRITZAILEAK SORTZEKO PROGRAMA DIRU-LAGUNTZEN 2019KO DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEKO FORU-DEKRETUAREN PROIEKTUA prestatzeko prozedura.

**BIGARRENA.-** ENPRESA BERRITZAILEAK SORTZEKO DIRU-LAGUNTZEN 2019KO PROGRAMA ARAUTZEKO FORU-DEKRETUAREN PROIEKTUari dagokion entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea irekitzea 15 egun naturaleko epean, proiektuaren testua Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrialdean argitaratu den egunetik hasita, herritarrek, elkarteek eta eskubide zein interes legítimoak ordezkatzeko dituzten entitateek aurkez ditzaten egoki deritzen alegazioak; alegazio horiek foru dekretuaren proiektuari buruzkoak izan behar dute.

La sociedad pública foral Beaz, SAU prestará asesoramiento a las personas o entidades promotoras apoyadas, en la fase de estudio, puesta en marcha y consolidación, de los proyectos empresariales innovadores. Beaz, SAU contará con la colaboración de Cedemi, Centro de Desarrollo Empresarial Margen Izquierda, SA.

Se entiende competente para proceder a lo indicado el diputado foral de desarrollo económico y territorial de la Diputación Foral de Bizkaia en base a la lectura coordinada que se realiza de lo dispuesto en el artículo 1 y 4.g) del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2016, de 9 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.

Por todo ello, se somete la siguiente propuesta de:

#### **ORDEN FORAL**

**PRIMERO.-** Acordar la incoación del procedimiento de elaboración del PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DEL PROGRAMA DE SUBVENCIONES CREACIÓN DE EMPRESAS INNOVADORAS 2019.

**SEGUNDO.-** Abrir un trámite de audiencia e información pública del proyecto de DECRETO FORAL REGULADOR DEL PROGRAMA DE SUBVENCIONES DE CREACIÓN DE EMPRESAS INNOVADORAS 2019 durante el plazo de 15 días naturales a partir del día de la publicación del texto del proyecto en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia para que la ciudadanía y las asociaciones y entidades representativas de derechos e intereses legítimos presenten las alegaciones que entienda convenientes y que deberán versar sobre la mencionada propuesta normativa.